

2019/0001445 **DEKRETUA / DECRETO**

DEKRETUA.- Hernanin, bi mila eta hemeretziko irailaren 10ean.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.3 artikulua ematen didan ahalmenaz baliatuz, eta ikusirik Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa arautzen duen 40/2015 Legearen 10. artikulua, honako hau

ERABAKI DUT

Lehen.- 2019/0001407 Dekretuan egindako esku uztea baliogaberik uztea.

Bigarrena.- Tokiko Gobernu batzarraren esku uztea alkateari dagozkion eskumen hauek:

- 1.- Obra eta zerbitzuen kontratazioa, zerbitzu publikoen kudeaketa, administrazio kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, baldin eta horien kopurua 100.000 eurotik gorakoa baldin bada Foru Kontratazio Zentralaren bidez izapidetutako kontratazioak izan ezik.
- 2.- Obra egitasmoak eta zerbitzuak onartzea, haiek kontratatzeke edo emateko eskumena badu eta aurrekontuan aurreikusita badaude.
- 3.- Udalbatzaren ondasunen gaineko emakidak esleitzea eta ondasun higiezinak eta ondare legeriaren mendean dauden eskubideak eskuratzea eta besterentzea, haien balioa 100.000 eurotik gorakoa baldin bada.
- 4.- 100.000 eurotik gorako gastuak baimentzea eta baliatzea, bere ahalmenen barruan.
- 5.- Planeamendu orokorraren garapenerako planeamendu instrumentuak onartzea, ez badaude udalbatzari espresuki esleituak, bai eta hirigintza kudeaketa instrumentuak eta hirigintza egitasmoak ere.
- 6.- Hirigintza lizentziak eta, oro har, obra nagusietarako lizentziak ematea obra txikiak I eta II motatakoak izan ezik, eta haietako hirigintza kontsulterei erantzutea, salbuetsiz ordenantzek edo lege sektorialek udalbatzarrari edo beste organo batzuei espresuki ematen dizkietenak.
- 7.- Aurri-aitorpenak egitea, berehala aurri aitorpenik izan ezik.
- 8.- Saillkatutako mota leko lizentziak ematea, udalbatzak tramitazioan zehar txostenak egin behar izatea gertatuz gero horiek egiteko ardura alkatetzari gordetzen zaiolarik.
- 9.- Enplegu eskaintza publikoa onartzea, Udalbatzarrak onartutako aurrekontuarekin eta plantillaren arabera.
- 10.- Langileak hautatzeko probetarako oinarriak onartzea, bai eta lanpostuen lehiaketetarakoak ere, eta finkoak eta aldizka-aldizkakoak ez diren ordainsariak banatzea.

- 11.- Errepikapen akzioa gauzatzeko erantzukizun administratiboko espedienteak irekitzea erabakitzea eta instrukziogilea izendatzea, eskumen hori beste organoren batena ez bada.
- 12.- Norgehiagoka bidezko diru-laguntzak emateko deialdiak egin eta oinarri arautzaileak onartu.
- 13.- Beste administrazioekin eta beste pertsona fisiko edo juridiko batzuekin lankidetzak hitzarmenak onartzea, eskumen hori beste organoren batena ez bada.

Hirugarrena.- Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetza honen menpe diren aipatu gaietara buruz hartzen dituen erabakietan, espresuki ohartaraziko da zirkunstantzia hori, eta horiek organo delegatzaileak eskuordetu ez dituen gaietara buruz hartutako erabakiek bezainbeste balio izango dut.

Laugarrena.- Denbora aldetik emandako eskuordetzak gaur egungo Udaltzaren agintaldian izango du eragina; hala ere, edozein unetan eta baldintza formalak aurrez bete ondoren, eskuordetzak aldatu edo baliogabetu ahal izango dira.

Bostgarrena.- Ebazpen hau helaraztea Tokiko Gobernu Batzarrari, Osoko Udaltzari berri emanegaitan egiten duen lehenengo batzaraldian. Era berean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da eta Udaletxeko Iragarki Taulan jendaurrean jarriko da.

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra jaunak agindu eta sinatu du, eta nik, idazkariordea naizenez, ziurtatu egin dut. Sinatua: alkatea. Sinatua: udal idazkariordea.